

KOKAPENA

Mutriku

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Mutrikuko Udala

DENBORA-ERREFERENTZIA

2008-2009

EKINTZA

Arno Red Natura 2000ko gunearen baitan Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) bezala izendatua izan da eta etorkizunean Babes Bereziko Eredua (BBE) izendatuko dute. Ingurumen arlotik zuen garrantzia abiapuntutzat hartuz, 2007. urtean, Debegesaren eskutik, egindako Ingurumenaren azterketaren ondoren, Mutrikuko udalak eremua balioan ipintzeko programa gauzatzea erabaki zuen, horretarako herritarrei zuzendutako kanpaina bat antolatuz.

LORPEN NAGUSIAK

- Mutrikuko herritarrek Arnoren inguruan daukaten ezagutza maila handitu, bertan dauden baloreak goraiatu.
- Udalerriko eragile desberdinen implizioa lortu da (Argazki taldea, Burumendi mendi taldea, ikastetxeak, etab).

ZAILTASUNA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Handia)

1

GIZARTE ERAGINA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Handia)

2

DATU INTERESGARRIAK

Deskribapena

2008 eta 2009a urtean, Mutrikuko Udala, herritarrei Arno gerturatzeko eta ezagutarazteko ekintza ezberdinak antolatu zituen. Arnok Iberiar penintsulan dagoen arte Kantabriar baso handienetakoa dauka, beraz benetako altxor naturala da. Gainera, eskualdean karga historiko handia du. Bere barnean Langatxo eta Iruroin bezalako Historiaurreko haizuloak, Tritium Tuboricum (Iturburu) deritzan erromatar finkapena eta Donejakuera zihoazen erromesak gidatu zituen Erdi Aroko galtzada gordetzen ditu. Azkenik, ingurune hau Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) bezala izendatu zen.

Guzti horregatik, Mutrikuko udalak, Arnok dituen balioak, herritarrei gerturatu nahi dizkio eta 2008an eta batez ere 2009an hainbat ekintza antolatu zituen.

- **EZAGUTZEN AL DUZU ARNO?** Herritarrek Arno ezagutu eta honen inguruan zituzten iritziak ezagutzeko asmoz, Mutrikuko plazan mahai informatiboak ipini ziren, Mahai honetan Arnori buruzko informazioa banatu, jokoak gauzatu eta Arnoren inguruko herritarren iritzia jaso zen.
- **ARGAZKI RALLY-A.** Udaleko argazki taldearekin batera, Arno gaitzat zuen argazki Rali bat antolatu zen. Ondoren bertan aurkeztu ziren argazkiak Zabil kultur etxean ikusgai egon ziren. Herritarrek ere argazki irabazle bat aukeratu al izan zuten.
- **JINKANA: ORIENTATU!!!!** Mutrikuko Institutuko 50 ikaslek baino gehiagok, Arnoren egingo den lehenengo gymkhana-n parte hartuko zuten. Bertan, orientazio joko baten bitartez Arnoko txoko bereziak ezagutzeko aukera izango dute.

- **BEKA 2008.** urtean udalak Arnoko baloreak goraiatzeko eta komunikazio kanpaina bat diseinatzeko beka bat atera zuen. Beka hau hutsik gelditu zen.



- **INFORMAZIO PANELA:** Arnoko, bideak, ondarea eta bioizatasuna identifikatzen zuen panel bat diseinatu ondoren, irteera bat antolatu zen eta panel hau Arnoko aterpetxean ipini zen.

- **LURZORUEN EROSKETA:** Ingurumenaren alderditik interesgarrienak dien eremuak udalak bere baitan hartzeko plangintza bat burutzen ari da, era horretan eremu horien babesa bermatuz.

Ekintza hauek banaka aztertuz gero ez dute berrikuntzarik suposatzen baina beraien balioa elkarrekin duten eraginean datza. Era berean, hasi berri den bidea dugu eta etorkizunean udalak Arnori dagokion plangintza prest dauka.

Lorpenak:

- Herri mailako eragile desberdinen inplikazio maila.
- Arnori buruz materialen eraketa.

Zailtasunak:

- Beka martxan ipintzeko eragozpenak, jende falta.
- Finantziazioa.

Arrakasta faktorea:

- Herri mailako taldeen inplikazioa. Burumendi Mendi Taldea, Mutrikuko Institutua eta Mutriku Argazkizaleen taldea

Kostua:

- Kostua: 6.000 € inguru.
- Dirulaguntza: IHOBE, 2008ko komunikazio eranskina.

Harremanetarako:

Mutrikuko Udala

Ingurumen Zinegotzia – Iñigo Aguirre
 Telefonoa: 943 603244
 Emaila: www.mutriku.net